

## Zestoako Udalak eskaintza berezia egin die herritarrei



40 BARATZE EKOLOGIKOK osatzen dute Zestoako Udalak 2013an Iraetan martxan jarritako baratze-parkea. Ekimen honi lotuta, Udaleko Euskara eta Ingurumen Sailek eskaintza berezia egin diete lehenik baratze-parkea lantzen dutenei: *Bizi Baratzea* liburua, Biolurren *Gida* eta ortuaren plangintza 20 euroan eskuratzeko aukera. Ingurumen teknikaria den Izaskun Larrañagak azaldu duenez, “nekazaritza ekologikoa eta euskara sustatzeko oso material egokiak iruditzen zaizkigu”. Ekainaren 8tik aurrera herri osoarengana zabaldu dute eskaintza: etxe bakoitzeko liburu sorta bat eskatu ahal izango da. Larrañagaren hitzetan “jendeak gustura hartu du, harrera ona egin dio”.

*Bizi Baratzea* liburuaz Errekondok Hernaniko Karabelekon emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai [www.argia.eus/multimedia](http://www.argia.eus/multimedia) helbidean.



### Eskuratu liburua sinaturik

*Bizi Baratzea* ARGIAN erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzurekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikus ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

### Eskaerak

Salneurria: 23 €  
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545  
[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)  
[denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus)

**Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.**



🐦 @bizibaratzea · Informazio gehiago: [www.argia.eus/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/bizi-baratzea)

## AURKEZPEN HITZALDIAK

### herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.

Hauek dira ondorengo hitzorduak:

#### Ekainak 10 Arrasate

KulturAten, 19:00etan.  
EreinDa Jan elkarteak antolatuta.

#### Ekainak 11 Leintz-Gatzaga

Gatzaren Museoa,  
18:30ean.

#### Ekainak 12 Alkiza

Don Juanena Eraikinean  
19:30ean

#### Ekainak 15 Lekeitio

Kultur Etxeko Azkue aretoan,  
19:00etan. Lekitto-bederra elkarteak antolatuta.

#### Ekainak 16 Ordizia

Barrena jauregian edo D'elikatuz museoan,  
19:00etan.

#### Ekainak 17 Gernika

Astran, 19:00etan. Urdai-baiko Kontsumo Ekologikoko Taldeak antolatuta.

### ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitetz gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu.

[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com)  
☎ 943 371 545